

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### Elkarteen jarduna sustatzera bideratutako higiezin udal-sarean dauden lokalen jabari-ema- kidak emateko oinarriak eta deialdia onestea

Herritarren elkarten jarduna funtsezko elementua da komunitateak interes orokorrekoak diren gaietan parte har dezan eta gizartea ekintza publikoan engaia dadin.

Elkartzea oinarritzko eskubidea da, eta hala aitortzen du esanbidez martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren bidez garatutako Konstituzioko 22. artikulua: "Hala antolatuta, herritarrek lortzen dute bide eragingarriagoak izatea, gizartearen arazo desberdinei buruzko iritziak helarazteko erabaki politikoak hartzen dituztenei. [...] Hain zuzen ere, legeria-esparru horretan gauzatu behar da, batez ere, botere publikoei eratziki zaien zeregina, gizarte-esparru guztietan herritarren parte-hartzea errazteko. Filosofia horren eragina arau osoan atzeman daiteke; egin-eginean ere, parte-hartzea benetakoa eta eragingarria izan dadin, tresnarik garrantzitsuenetakoa da elkarteetan biltzeko joera indartsua izatea".

Lege horren 4. artikulua Administrazioaren eta Elkarten arteko harremanak arautzen ditu, eta horren harira honela dio: "Botere publikoek suspertuko dute [...] interes orokorreko jarduerak gauzatzen dituzten elkarteak eratu eta garatzea".

Amaitzeko, tokiko esparruan, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 72. artikulua honakoa xedatzen du: "Toki-korporazioek lagundu egiten dute auzotarren interes orokorren edo arlokoen alde egiten duten elkarten garapena, beren jardueri buruzko informaziorik ahalik eta zabalena ematen diete, eta beren ahalbideen baitan, baita herri-baliabideak erabiltzea [...] ere".

Lege-esparru horretan, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 7an sare batean bildu zituen elkarten etxeetan garatu ezin diren elkarte-jardueretarako erabil zitezkeen zenbait lokal.

Kontuan hartuta bai egoera ahulagoan dauden kolektiboekiko esku-hartzean diharduten bai gizarte eta osasun arretan lan egiten duten elkarteengandik eskaerak eta oharrak helarazi direla beren jarduerarako lokalen beharra dutela adierazteko, agerikoa da aukera egokia dela goian aipatutako lokalen jabari-ema-kidak emateko lehiaketaren deialdia egiteko, aipatu berri ditugun elkarteek beren jardueretan erabil ditzaten.

Udalak honako lokal hauek ditu helburu horietarako goian aipatutako sarean sartuta:

INBENTARIOKO ERREF.	KOKALEKUA	METRO KARRATU KOP.
I-5008	Sofia Erreginaren hiribidea, 100	441,47
I-5009	Sofia Erreginaren hiribidea, 110- 4. lokala	148,73
I-510	Sofia Erreginaren hiribidea, 110- 5. lokala	191,19
I-512	Martin Luther King kalea, 10- 2. lokala	148,65
I-4509	Bastida kalea, 27	188,70
I-5013	Viena kalea, 14	118,70

Dosierrean idatzita ageri dira aipatutako lokalak jabari-emakidan jasoko dituzten elkarteak hautatzeko baldintzak zehazten dituzten oinarriak.

Orobat, dossier horretan ageri da zer prozedurari jarraituko zaion horretarako, honako hauen arabera: Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean dago araututa, oro har, jabari publikoaren gaineko emakiden erregimena, eta toki-erakundeei dagokienean, berariaz, Ondasunen Araudia onetsi zeneko ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege dekretuan (toki araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak jasotzen dituen testu bategina onesten du).

Adierazitako guztia kontuan izanik eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokionez, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkari honek erabaki proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Lehena. Goian aipatutako lokalak, hots, elkarteen jarduna sustatzera bideratutako higiezi-  
nen udal-sarean dauden lokalak jabari-emakidan emateko lehiaketa-prozedura arautuko duten oinarriak onestea.

Bigarrena. Lehiaketa-prozedura deialdia onestea, eta agindua ematea dosierra jendaurrean jartzeko eta lehiaketa publiko bidezko prozedura irekia zabaltzeko BOUTHAN, Udaletxeko iragarki taulan eta egokitzen jotzen diren beste edozein zabalkunde-bidetan.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 23an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**